

ZAKALAR

Aintzin-, azken solas eta
hiru zathitako gerthakari bat

-1939-

GANIX IRATZEDER'rek egina

Eskualzaleen Biltzarrak saristatua
(Etxepare mirikuaren saria)

«Airea zahar eta
kantorea berri»

Zenbat gazte, arin arin, mendiz mendi ibilirik
Diren nunbeit gau batez hil, tiro batek odolzturik!
Zenbat gazte urrunerat diren arrai abiatu!...
Eskualdunen balentriak nork erranen othe ditu?

Zuen hautsak noren kharrak ditu noizbeit berpiztuko?
Eskualdunen ttipitzetik noiz girade geldituko?
Dugun gorets gure Eskual izaitea gure gazten
Bihotz hutsak Aiten fede eta lurrez bethe ditin

Gizon eskas, mutxurdinez kanpo orai Eskualdunik
Ez othe da? Bertze asko esagutsen baititut nik,
Pausatzean, egin nuen gertakari lapurtar hau,
Haur lan bat da, Bainan xede handi batek sustatu nau

Nere lanak eta oro ordainduak zaizkit jada
Bihotzeko nere deia nunbeit artzen balin bada:
«Eskuararen zain biziak, ja baitire histen ari,
»Ez ditzagun jos hil mender, jos ditzagun Geroari»

Ager-Tokia: sukalde bat

1º- Aintzineko paretan:

- a) Eeditsutan: supazterra bere edergallu gusiekin
- b) Eskuin: ezkaratzerako athea
- c) Ezker: suila-toki bat edo mahaintto bat

2º- Ezkerreko paretan eskaleraK

3º- Eskuineko paretan

- a) athe ondoan: armario bat
- b) leiho bat

4º- Erdian: mahaina

Piarres ZAKALAR: Zakalarbordako nausia - Kontrabandixt Aintzindari- Hogoi ta hamar
bat urthe

GAXUGHA: Piarresen andrea

Betroin xuri gorria deitzi duzu ere? **GAXUXA**

Ba, ba **PETTAN**

Mokor aldian zaituguia egun?
Erradazu ba, Pettan, orduan zer duzun. **GAXUXA**

Te! gure nausiaren harat hunatekin
Etxe huntan deus deusik ez diteke egin
Kontrabanda tzar hori... **PETTAN**

Ai! errazu berritz!
GAXUXA

Landetako lanentzat bederen hor balitz!
Jorratzekoak dire oraino arthoak. **PETTAN**

Ai! etxalderat balu laguntzen gogoak!
GAXUXA

Zinez, ahalgegarri baita azkenean;
Hemen den funtsarekin gure etxaldean
Laster ez dugu larre baizik ikusiko,
Gure lur guzietaz ari dire asko
Trufatzen... Haren aita zenaren denboran,
Gure Zakalarborda ez dezaket erran
Zoin ikustekoa zen: landa ederrenak
Harek zituen eta... **PETTAN**

Oi, zer ospautuak!
Irriz ari girade Pettan, bainan gutik
Jasan lezakete gau guzian etxetik
Kanpo beren senharra hola ikhustea,
Piarresek ahulxko du bere emaztea. **GAXUXA**

Ba, zuk egin ahalak egiten ditutzu
PETTAN

Ez dakit, ez da ezaun bethi.
GAXUXA

Zer nahuzu,
Andre! Odolean du hori. **PETTAN**

Odolean
Bai!... Kaskoan; ez othe liteka etxean
Egon, nik hainbertzetan othoiztu ondoan?
Odolean!... Zertako mendiraino doan
Nago, baluke hemen odol bero horren
Enplegua, bai segur, gure eta haurren
Izaiten xahutzerat joan gabe. **GAXUXA**

Bai, hori
Segur, bai; bainan sinhets arez zozu hari.
Ez baita berdin enex andre. **PETTAN**

IV

Zakalar-Gaxuxa-Pettan

PETTAN

Té, horra nun dagon

Nagusia.

PIARRES

Jaun Goikoak dautzuala gau on!

GAXUXA-pettan

Bai eta zuri ere

PIARRES

Norat zoazi hola

Pettan, ilhun ilhunik?

PETTAN

Te! goizaren bila...

PIARRES

E! etzaitela leher

V
Zakalar-Gaxuxa

PIARRES

Gaxuxa, badoa?

GAXUXA

Bai, bai.

PIARRES

Zoin goxo zaitan gaur etxe xokoa!

Arras bustia nuzu eta akitua

Bai, gaitza izan baita egungo gudua,

GAXUXA

Palto busti hotz hori ken zazu kuxean.

Oraiko atxikazu xahar hau soinean

Bainan... ez duzu nihun minhartu mendian?

Ez eta minik egin guarderi, agian?

PIARRES

Laster ibili gare bainan minik gabe;

Erreka ziloetan trebe gira trebe.

Bazter hoitan guretzat ez duzu lanjerik,

Gure aztalek guardez ez dute beldurrik.

Tartean besarkadak ez bagintu maite

Mendi biskarren gaindi joan gintezke ote?

GAXUXA

A! Haurren izenean, Piarres, othoi kasu!

Zuez balentriekin maiz nago ni kexu,

Noiz duzu ba utziko kontrabanda tzarra

Noiz, bada, noiz, gizona, prestutuko zira?

PIARRES

Ez naute atxemanen, oraino, Gaxuxa.

Ez izar begirale maitea, ez kexa.

Ez has erasiaka... Ekar zerbeit jaki

Othoi, egin dezodan gogotik ausiki.

GAXUXA

Ez naiz arinki mintzo, Piarres, arras huntan

Gaur nahi dautzut erran, gogoan zer dutan.

PIARRES

Ja badazkinat oro: mendian ez ibil

Eta etxe xokoan eihartu eta hil

A! othoi, hire baitan sar hadi, gizona
Behin bederen entzun erraten dutana.

GAXUXA

Hots, laster egizu ba lotan ez nadin sar

PIARRES

Ehaiz donado bainan aita eta senhar.
Hortaz ohoitzen bahintz ez litezke alfer
Nere erran guziak. Pensa zure haurrer
Pensa zuri loturik den emazteari
Bihotzik baduzun ez da ere ageri
Zurekin hobeko dut, ixiltzea

GAXUXA

Ba, segur

PIARRES

Zerbeit gaitz gertatuko ez zaikun ni beldur
Bainan orai zure gain uzten ditut oro
Urrikutuko zare beharbada gero,
Ni lehen ez entzunik. Oherat banoa...

GAXUXA

Zoin zaintsua zaren, ba, Gaxuxa gaixoa!
Zertako hasten zare bethi eztabadan.
Halere ibiliko nuzu kontrabandan,
Nork nezake mendiko lasterka hetarik
Geleiaraz? Jaunaren legeak bakarrik.
Aitek daukute eman ofizio hori
Jaun Goikoa bakarrik da nausi heieri.

PIARRES

Frantses buruzagien ebastea haizu?

GAXUXA

Nori zer diogu ba ebasten, errazu.
Eskual-Herrikoentzat ez da hor mugarik
Aduana horrek ez du deus ikustekorik.

PIARRES

Zerga guziak hola biltzen badituzte
Franses goberniera nola bizi daite?
Ohointza bat ez deia? Alo! Egundaino!

GAXUXA

Bainan kontrabandixta hartua ez deno
Zergarik pagatu gabe ibiltzen ahal da.
Atxematen badute duen kontrabanda
Bai, orduen bakarrik amandak zor ditu
Edo presondegian beharko du sartu.

PIARRES

Agian, ez zaikula hori gertatuko!

GAXUXA

Iduri zitzaitan, bai, beldur zarelako,
Ari zatzaizkidala maiz eraziaka,
Kontrabandixtak ere lanjerak badauzka
Airetan ta urean dohanak bezala.
Halere kontrabandak onik ez duela
Nork dezake ba erran. Ez ditezke bizi
Gu gabe guardattoak; alfer balagozi,
Eta noizean behin molsaño bat diru
Ekartzen dutanean...

PIARRES

GAXUXA

Bai horren haiduru
Aspaldi nagokizu.

PIARRES

Ethorriko zaitzu
Ethorriko, Gaxuxa... Hamekak ditutzu

GAXUXA

Bon! eta... mahaineko puxkak xoko hortan
Emazkitzu jan eta bihar ez ditzatan
Oro trastekerian atxeman... A! Piarres
Kontrabandak etxeko jaunak maiz errumes
Eginen dituela diote zeharrek

PIARRES

Erranak, atsohitzak ditutzu horiek.

GAXUXA

Zer atherako dugun hortarik ez dakit
Gau on!

PIARRES

Ez etsi, gau on!

VI

PIARRES

Gauza berak dauzkit

Bethi errepikatzen abantsu hitzez hitz
A! Gaxuxa gaixoa zaintsua az balitz
Kalitate guziak lituzke segurki...
Arras huntan zer zaikun gertatu balaki.
Bai, pil pil ari baitzait oraino bihotza!...
Egungo gaua are hain ginuen beltza!
Hots! ablatu ginen oithamar bat pinta
Bakotxak bizkarrean menttan hartu eta
Gaur uria ari zen tzir, tzir, jautsahala
Bazter hoitan guardarik ageri ez zela
Gure barrandarien argieri esker
Jakirik, segur nintzen ginituen puxker
Nihor ez zitzaikula egun oldartuko.
Zoin bere alde beraz joan ginen janeko,
Bertzeak nitarik ez bide ziren urrun;
Ni errekan ibilki nintzen oraino nun...
Bai, pil, pil, ari baitzait oraino bihotza!
Sasipetik entzun dut tanpez dei bat latza;
«Geldi!»! eta bi guarda atheratzen zaizkit.
Zer egin dudan xuxen orduan ez dakit:
Airez aire bezala naiz luzaz ibili...
Nola ez diotan ba jo zerbeit arboli
Edo zerbeit harriri nola othe nago.
Nere ondolik nuen gero ta geihago
Hurbiltzen ari Gazpar guarda mehar hori.
Hatsantua, hurbildik oihuka zen ari:
«Geldi! Zakalar, geldi! Berdin hartua haiz!»
Patarrari behera lasterka gaki naiz.
Behere hartan, futxo! ibaiño bat eta.
Zer egin ba? Zer egin? Ez dezaket hauta

Jauzi bat egiten dut; banoa aintzina.
Gazparrek egin nahiz nik egin nuena
Pulli pulliki gan zait pulunp egitera...
Errabiaturik da uretik athera.
Xizparekin tiroka gibeletik hasi
Huruski ilhunpetik ez bainau ikhusi.

Nere agorienta ongi gordeturik
Horra beraz nun naizen orai deskantsurik.
Deskantsurik? Mum! ez da, ez, fidatu behar
Hain da tzarra, nork daki zerari den Gazpar.

LEHEN ZATHIA

Gauaz

GAZPAR

Ez dute etxe huntan ohoinen beldurrik
Ez, eiki. Deskantsuan athetik sarturik
Oren laurden bat badu miatzen dutala.

Agorienta horren ondotik nabila
Eta ezin atxeman...

Zer othe zen hori?

Bo! sagu bat ziteken...

Bai, deagustagarri
Desgustagarri da, bai. Hor nuen... ondoan...
Haren atxematerat xuxen banindoan
Eta... Bazakien ba hark nundik iragan
Ni aste bezala haren ondotik gan,
Nork erran bazela hor orai hanbertze ur?

Zer da harrabots hori?

Zertako naiz beldur?
Badut hor laguntto bat, zinez, guziz ona.

Jendea berehala xarmatzen duena

Bainan, bainan Zakalar tzar horren jokoak!
Pagatuko dautazu bai noizpeit gaixoa,

Nun othe du kokatzen horrek kontrabanda
Ai, ai, Zakalar hori axeri ona da...

Ez, segur, ez du hemen, ez, agorienta.

Jes! ethorri bezala, joan beharko duta?

Zer kontrabandixta den Zakalar haatik!
Gaiza da gizon hori!

Ez, agorientik
Ez duzu hemen nihun
Ea- palto hortan
Balía dezakedan paperik ez dutan

Gizona! oraikoan badut zerbeit naski
Molsaño huntan bada bethi paper aski
Ea ze dion hunek? Aitaren potreta
Gizona! hura ere zer kontrabandixta

Ehun Ilberako bat... ez, ez naiz ohoin bat
Bota nezake berdin nere sakelarat
Nahi banu, bainan ez.

Eta hau?... Gizona!
Letra bat Akitzeko erosle batena

Dena-re on; bat, on dut letraño hau ere
Bai, bai...

II

*Zakalar-Gazpar
(Piarres eskalaretarik emeki-emeki jausten)*

Gazpar	PIARRES
	GAZPAR
Zakalar!	PIARRES
Zererat jin zare?	
Ez, ez jakin behar dut zertarat jin zaren Haizen bezalakoa! Ehaiz mintzaturen?	GAZPAR
A, e, ez...	PIARRES
Klarki mtntza hadi ba gizona	GAZPAR
E, e, ez uste izan zakalar xoina...	PIARRES
Zer haiz ba? Sos emaile? Alo! zer kopeta	GAZPAR
Ba... ba... ba	PIARRES
Baietz? ongi bota hunat bota!	
Zeren begira hago, laster madak ba. Ez nindukan ikhusi nahiko beharba...	GAZPAR
Ez nian uste zinez hoin ez deusa huntzen Ez dituk segur guarda lagunak edertzen Hoakit, ta... etzakala sahetseko hori Har, berdin baitakit zuzenkontra ari	

Haizela orai: nahi huntuen bazter hauk
Ikertu: kusiduk, nihaur ikusi nauk.

GAZPAR, *erdi othey luz*

Zakalar!

PIARRES

Hoakit laster xaut ere unki
Nahi, gu Eskualdunak leihalki, garbiki
Ari baikituk eta buruz buru, Gazpar
Mendi gain hoitan. Hondak erakutsi behar
Niri nausi haizela... aski ikusi haut

GAZPAR

Bainan...

PIARRES

Atxemana hiz eta iduzizant
Hobe dukala ixil ixilik joatea

Bai, bai, hail deskantsuan, ez dut nik jendea
Gibeletik kolpatzen eta hi bezenbat
Zozo diren ohoiner gegi kolpeño bat
Ez dezoketet ere bota...

GAZPAR

Ikus arte

PIARRES

Atseginekin, Jauna, ongi pausa zite!
Doakitala hire kaskoin arpegia
Doakitala laster bixtatik, pestia!

III

ZAKALAR *bakarrik*

Hau gizon tipula!
Bai atxemana zen! Zein
Gaizoa den haatik! Gaizo Gazpar ohoin
Bilakaturik ere ez nauk garhaituko
Zakalarren larrua ez duk horetako

IV

Zakalar-Pettan

PETTAN

Beztlituz sartzen da

Jauna, zer gertatzen da?

PIARRES

A Pettan hi hintzen,
Zertako hiza egun hain goizik jeikitzen

PETTAN

Bainan, Jauna, ez duzu ikhusi? Aditu?

PIARRES

Ametsetan ari haiz?

PETTAN

Te, jauna, barkatu
Ohoin zerbeit bazela uste nuen eta.

PIARRES

Gostuan lokar hadi!

PETTAN

Bainan...

PIARRES

Duesik ezta

PETTAN

Zu destenere huntan horrek jeikirik...

Eta bazen ba norbeit.

PIARRES

Hail, hail deskantsurik.

V

Gaxuxa-Piarres-Pettan

GAXUXA

Zer ziren ba oiuhu hek? Zer ari zaitze hor?

PIARRES

Zoazi, oherat, zoazi, etzen hemen nehor.

GAXUXA

Zer? Zoazi etzen nehor... Nor zen ba astian?

Kontrabandarat othe etzare abian?

PIARRES

Ez, ez, bakea!

GAXUXA

Nor zen astian, errazu

PIARRES

Nehor ez,

GAXUXA

Egundaino! Nor ethorri zaitzu?

PIARRES

Zoazi oherat, othoi!

GAXUXA

Zuk ez duzu entzun?

PETTAN

Ez dakit...

GAXUXA

Ez dakizu? Zer duzu ba egun?

Entzun duzu bai al-ez?

PETTAN

Jaunak erran zautan...

GAXUXA

Jaunak, bai... Entzun duzu zuk zerbeit gau huntan?

Pierres

Oi, aski!

GAXUXA

Entzun duzu?

PETTAN

Entzun dut, bai, andre.

PIARRES

Goazan oherat; haurrak, atzarriko dire

Zuen komediekin

GAXUXA

Zu, haurrez kexatzen?

Lo dagozi, ez kexa. Errazu nor zen.

Nork ideki othe du armario hori?

Nork unki othe dio zure paltoari?...

Paltoa? Zer othe da? **PIARRES**

Eta hor, lurrean. **GAXUXA**

Moltsa! mila demuntre! **PIARRES**

Zer zen ha astian? **GAXUXA**

Aithor zadazu orai **PIARRES**

Guarda ohoin tzarra! **GAXUXA**

Zer diozu? **PETTAN**

Guarda bat jin zaitzu etxera? **PIARRES**

Tipula! ai, zoroa, hi haiz bai tipula! **GAXUXA**

Bainan izigarri da! **PETTAN**

Guarda bat jin dela
Hik ez dezaket sinista! **GAXUXA**

Piarres, mintza zaitte
Nor zinuen? Zertarat ethorria othe? **PIARRES**

Gazpar zen; ez ahal daut paperik ebatsi. **GAXUXA**

Horra beraz zer behar ginuen ikusi
Zorioneko zure kontrabandarekin.
Atzo zer egin duzun nihurk ez du jakin
Guardek nunbeit ez othe zaituzte ikusi?
Ez othe zare gan lasterka ihesi?
Bai, bai, zorioneko zure kontrabanda
Aiten ofizioa, dezagun ba lauda!
Gauz horrek ondorio hoberenak ditu:
Mendian bazintuzte atzo harrapatu
Galdu behar ginuen gure etxaldea
Galdu, zure gatikan, gure ohorea...

PIARRES

Othoi! Gaxuxa, ixil. Ez zare ohartzen
Deusik ez dautan hartu dutala bllatzen?
Ez has ba mintzalditan. Kexu muzu eta...
Aspaldi badakizu zuk kontrabandixta
Dela bertze bat bazein xoragarria...

GAXUXA

Hartua izaitea ohore handia! **PIARRES**

Oi, aski, aski! **PETTAN**

Othoi! ande... dere kasu **GAXUXA**

Zer uste duzu ba, ni ez naizela kexu?
Bai, Piarres, zu bezenbat bainan... **PIARRES**

Bai, bai, joan daut
PIARRES (segida)

Letra bat... Ai! debrien guarda! ez ahal haut
Guti bozkariatu hain errexki joanik
Eta gero parerik, ez, ez, dutala nik.

GAXUXA

Bainan zertako dautzu letra hori hartu?
Hor zelarik ez zare deusetaz ohartu?

PIARRES

Ez nuen pentsatuko ere... Hura ere
Ez zen hortakotz jin, ez.

GAXUXA

Noiz, ikhusi dire
Egundaino guarda hoik etxetan sartzen? Noiz?

PIARRES

To! aduana guzia bihar, goizean goiz,
Hunat ethorrarazi nahiz, ibili da
Bazter huien ikhertzen, soberarik fida
Ez izanez; ez baitu bere buruñoa
Ttipitu nahi. Hura, aduana osoa
Eta guziak sartzen ahal dira hemen
Miatzen ahal dute zenpiternan amen.

PETTAN

Hola eskapatzerat lehen etzinuen
Utziko, ez dut uste.

PIARRES

Eskuan baitzuen
Jenden prestutzekoa

GAXUXA

Zer lanjera! Jauna!

PIARRES

Bo! ez zezaken deusik egin bere tresna
Horrekin, arrunt zuzen kontra aitu baita
Gure etxean gauaz sartuz

PETTAN

Zer kopeta!

GAXUXA

Zer ba? bere etxean ere ez nagusi?

PIARRES

Dona dan, futxo! letra horrekin ihesi
joan zait

GAXUXA

Goiz edo berant zerbeit makiur jinen
Zitzaikula bistan zen; goiz arrats han zinen...

PIARRES *bere buruari*

Zer egin

GAXUXA

Gaixo haurrak! zer eginen dute?

PIARRES

To! guk egin duguna

GAXUXA

Piarres, ixil zaite
Othoi! Ez zadazula holakorik erran.
Aitak ez othe dautzu etxalde bat eman?

PIARRES *bere buruari*

Zer egin ba? Zer egin?

GAXUXA

Mendian ez ibil

Hortan dago guzia

PIARRES

Azkenean, ixil
Bai, bertze predikurik egiteko orai
Badugu nik hitz dautzut.

PETTAN

Bai, bai, nausia, bai.

PIARRES

Letra horrek zituen frogak hartu nauzki;
Hartarik zer eginen duen nik banaki!
Bainan nork jakinandu zer duen kaskoan?
Ohoin tzar bat bezala etxetarat doan
Guarda hiitzalle bati nola naite fida?

GAXUXA

Ongi zinien, Piarres: «Biba kontrabanda»

PIARRES

Bainan, Gaxuxa, ez da zorokerietan
Aitzeko mementoa, iduri zitzaitan
Zinez, zentzu geihago zuk bazinuela
Etxekander bati doakon bezala.

GAXUXA

Zer nahi duzu, Piarres, dutan jaunarekin

PIARRES

Ez duzu ba ikhusten, nihundik zer egin
Ez dakitala. Huna! letra horre esker,
Aski tzar balin bada, orai preso bier;
Jaun horri eta niri sartzen ahal gitu;
Eta harrituko naiz harek ez baditu
Frogak goiz edo berant jujer erakusten.
Hinka gaixto hortarik zerbeit moduz giten
Gaitzik gabe athera gogoetan nago
Eta zu predikutan gero ta geihago.

GAXUXA

Zer egin dezakezu? Bainan xahu gare.

PIARRES

Ez oraino, ez, errex ez izanik ere
Zerbeit eginen dugu. Ez zazula etsi
Bi adixkide behar nintazke ikhusi.

GAXUXA

Zer? Nahi duzu orai kanpoan ibili?

PIARRES

Ez, ez

Pettani larrerat zoazi sarri?

PETTAN

Bai

PIARRES

Iruli

Horgaindi ikhusiko duzula segur naiz

PETTAN

Zurekin ez danean bai, bai, han dago maiz

PIARRES

Errozu beraz lehen bai lehen jiteko

PETTAN

Bai; joanen naiz eguna zabaldu orduko

PIARRES

Ongi da. Nik hobe dut gaur ez agertzea

PETTAN *abiatuz*

Bon! zalsi xuriaren gainean jartzea
Hobe dugu naski? Gau on

PIARRES

Bai gero arte!

GAXUXA

Ez dut lorik eginen, ez, nik

PIARRES

Lokar zite
Deskantsuan, deusik ez da Gaxuxa gainerat doa
Piarresek eskaberetarik, ukhamiloa erakutsiz:

A! Gazpar, Gazpar,

Nagusitu haiz egun, bainan horduk bihar!

BIGARREN ZATHIA

Goizean

I

Piarres Ganix

Mahainaren bialdetarik jarriak

PIARRES

Gan daut jaun horren letra...

GANIX

Bainan hori da tzar

Izaitea: egoitza batean gauaz sar...
Gure kontra guarda bat gisa hapi balitz.
Segur nuzu hiltzaile eta ohoin sinitz
Gazpar hori bezein tzar ez direla beti.
Tzar baino tzarrago da.

PIARRES

Kontrabandixt bati,
Segur hori nunbeitik oldartzen bazaio
Ai, osoki larrutu artean ez dio
Nihundik barkatuko.

GANIX

Bai, horra du horra
Tzar horrek bihotzean. Jada ainitz dira
Horren aztaparretan barna eroriak
Zer mina egin duen haren tzarkeriak,
Kadillako Erranun gaur bi ilhabete
Giltzapean Bayonan ez othe daukate,
Bere andre gaixoa etxean utzirik,
Hiru haur ttipi bere gain dituelarik.

PIARRES

Guk laguntzen ditugu

GANIX

Zer erran nahi du?
To! Kadillakoak ez bagintu lagundu
Gosez ta zorigaitzez behar zutela hil,
Nor da, erradazu, hura bezein zirtzil?

Bera egitekoa hark egin bazeza!
Nun othe du guziek daukaten bihotza?
Guardagoa eginik dagola deskantsu.
Bainan ez, hain herrakor eta urgulutsu
Da nun harek sekulan bakerik ez baitu
Begian duen hori ez badu larrutu...

PIARRES

Bainan atxeman gabe ez dezake larru...
Gizagaizoa! gure larruen haiduru
Badago...

GANIX

Bai, hori da, asmurik ez dauka,
Gau egunez badoa erreka erreka,
Bere herrak zintzurra tinkatzen diola.
Zakhur errabiatu itsu bat bezala
Ahoa zabaltzen du zaniz orotara
Nor ausikiko duen sasitik begira

PIARRES

Ez dakiat zer duen: Herra, errabia
Edo nahi dukana, bainan ausikia
Ez dik, bethi asmurik gabe. Zer kopeta!
Agorient xorta bat ez etxean eta...
Gogoratzeak berak nau erroarazten...
Parperto ez deus hori horrek atxematen!
Eskuetarat frogatzen ederrak jin zaizko.
Moltsaren gordetzeaz nor zen orhoituko?
Nor zen ohointza hortaz beldur izanen? Nor?
Eta noiz danik guardak ditezke ba ethor
Etxe baterat gauaz deusik erran gabe?

GANIX

Holakoetan Gazpar trebe duzu trebe
Eta zenbait bakartto atxeman baditu
Ez ditu lapurkeriz baizik harrapatu.
Errabia du horrek, zinez, errabia:
Aspaldi ez gintezke nihorat abia
Haguna dariola, itzalpe batean,
Hura ikhusi gabe. Ganden arratsean
Ere...

PIARRES

Errabia dik horrek; ongi diok

GANIX

Noiz arte ditugu ba, Piarres; tzarkeri hok
Mendi hautan jasanen? Zer egiten zaio
Zakur errabiatu bati?

PIARRES

Ez nitzaio
Holako zakur bati sekulan ohartu
Bainan... Ganix, zer erran nahi duk?

GANIX

Baditu

Zenbait mehatxu bakar izanak jadanik
Geroan orhoit zaite gaur zer diotan nik
Elhe alferretarik, ez bagina laster
Egintzetarat joaten...

PIARRES

Zer gertha daite?

GANIX
Zer?

Handizki hobendunak izanen garela
Eta ez dela segur hark atzo bezala
Hutz eginen duela bethi

Piarresek sorbaldak higitzen ditu
Bardin zaitzu?

Emagun. Bainan zure azpiko ditutzu
Mendi bazter hautako gazte biphilenak
Eta guarda gaixtagin horren tzarkeriak
Hotarik bat kolpatzen, hiltzen badu ere
Orduan hobendunak nor izanen dire?
Nor othe, erradazu, Piarres.

PIARRES
Nik dakita?

GANIX
Ez dakizu? Haratik ez hunatik ezta
Nor litezken hobendun nor nahik badaki
Herrian: gu gintezke eta bereziki:
Zu!

PIARRES
Asmatzea ere bada zerbait, alo!

GANIX
Notz danik daukazu ba, izpiritua lo?
Bainan, ez othe zare, zu, hain erne zagon
Zakalar handiaren semea? Ez zion
Eginbideari hain luzaz behatuko
Ez, harek: tzarkeri hok ikhasi orduko
Tipustapan heziko zuen Gazpar hori
Eta, errazu, norat joan zaitzu zohorri,
Piarres, zure kalipu sustagarri hura,
Miresten baikinuen orok zure kharra?
Berrikitan Gazparri dagoela prestu,
Ez diozu zehorrek othe gaztiatu?
Eta laster joateko orai zenbait egun
Erran diozunean, hortan zan ezagun
Bai, manu azkar hortan noren seme zaren
Kalipu bazinuen orduan bederen.

PIARRES
Oso daukat, hitz dauiat, oraino lehengo
Kalipu hori baifian gogoetan nago...

GANIX
Gogoetan...

PIARRES
Bai, Ganix, hi aise mintzo haiz.
Hi ere duda mudan egon hinteke maiz
Zure erran guziak manuak balietz,
Gaur diokanaz nago xartzen haizenetz
Edozoin gizon bati oldartzea zer den
Eda guziz...

GANIX
Ni nago zertako gaur zauden
Hain luzaz duda mudan, arrunt ilhaundurik
Egintzeri lotzeko eguna delarik.

Geldirik egoiteko manatu zinien:
Beha oradnu horri kasu eman dion
Errabia gorrien jin zaiku ondotik,
Gero ta ozarrago da eta geroztik.
Atzo zure hiltzeko egin dautzu tiro;
Ikhertu gauaz zure izaiteak oro,
Ohoin, hiltzaile eta... zer egin behar du
Zertarat behar othe du, zertarat heldu,
Zakalar, bethe ditzen zure rnehatxuak?
Irria ari zinen ba mehatxuka?

PIARRES

Errak
Ganix, nik bazein ontsa badakik; orduan
Zafraldi edertto bat, oihanpe batean,
Eman gogo ginion eta bertzerik ez.

GANIX

Segur, bainan, errazu, hanbat tzarkeriez
Ez zitzaikun jazarri hori orai arte.
Gure zafraldiek zer egin dezokete?
Zer, gaur hortaratua delarik, tzar horri?
Errabiaraziko dute; nor nahiri
Hasiko zaio berdin koleraz tiroka,
Zure ahuleziak ez othe diozka
Etxe bati zorigaitz izigarri batzu
Emanen? Bainan orhoit, zure gain ditzuzu
Kontrabandako zerak. Zu zare, Zakalar,
Mendi hautako Jauna! Eta norbeit bihar
Erortzen bada horren aztapar luzetan
Bethikotz errokarat badeatzi ere
Eta gutarik zenbeit, bai, hiltzen badire
Zehorren falta dela jakin ere gabe
Ez da herrian nihor izanen herabe
Badakizun manatzen gora dudatzeko.
Mendietan lanjera, sumatu orduko,
Zuk ditzuzu jendeak begiratu behar.
Guarda bat agertu da hiltzaile bezin tzar
Gero ta ozarrago da; froga azkarrak
Badituztu: begira zure herritarrak.

PIARRES

Hail ba eta ikhus zak mendirat badoan
Sarri eta norekin. Aduana ondoan
Ez ager soberarik, deusetaz ez ditzen
Xart; beha lagunek ere zerdioten.
Harzikik abiadurak gateko mendirat,
Azken manuak gero omanen dauzkiat
Arratsaldean...

II

Piarres-Ganix-Gaxuxa-Haurrak

MAYI kanpotik

Ama!

GAXUXA kanpotik

Haurrak mugi zaizte,
Piarres (biak xutitzen dire)
Erran bezala beraz, Ganix.

GANIX

Sarri arte.

GAXUXA

Mayiri. Eskaleretarik agertzen dire

Ganixi Iruli hemen dugu eta.

GANIX

Agur etxekandre, bai, goizetik bisita
Egun.

GAXUXA

Goizegi, Ganix, ona Izateko Piarre

Alo!

GAXUXA

Zoazte bahatxe, haurrak, tenoreko
Harako zaizte berdin, besarkatzen ditu
Atheratzen direlarik. Pellori Altxa galterdia

III

Piarres-Gaxuxa-Ganix

PIARRES ardi irriz

Hau! etxekandre baten ongi ethorria!

GAXUXA

Hau! zinez aita baten arnodio hotza!

GANIX aharrak urrunau nahiz

Orai nindagon eta... zer haur pare gaitza
Duzuen ba haatik

GAXUXA

Bai, Ganix, badauzkan
Ere nago xartzen den, hain duzu bakan
Etxean bai eta hor denean: axtian
Ikhusi duzu: hitzik ez... Alo! agian
Ez daukula makurrik ekarriko atzo
izan bisitak!

GANIX

Hilak ez dirade mintzo!
Ez izan grifiarikan; sarri arte beraz.

PIARRES

Bai sarri arte eta... hik ez ager-araz
Zer egin gogo dugun sobera hor gaindl

GANIX

Ez, ez, badut bertzerik egitexo, adi!

IV

Piarres-Gaxuxa

GAXUXA bere buruari

Hilak ez mintzo! bainan...

PIARRES

Zer duzu Gaxuxa?
GAXUXA

Zer egin gogo duzu oratno?
PIARRES

Ez kexa
 Aski handia naiz zer egin behar dutan
 Jakiteko, ez has ba erasi beretan
 Othoi! othoi! bakea.
GAXUXA

Bainan erhokeriz
 Erhokeri bazoazte,
PIARRES

Inposilez irriz
 Ari zare, Gaxuxa
GAXUXA

Irriz? zu bezenbat!
 Eginen diozue zuek tzarkeri bat,
 Segur naiz
PIARRES

Oi! bakea!
GAXUXA

Ez othe duzun hil
 Gogo ere ez dakit,
PIARRES

Azkenean ixil
 Deusik eginen dugun ba ethe dakizu?
GAXUXA

Zurekin mintzatzea ez othe zait haizu?
 Ganix hunek zionaz bethi gaurgo hila
 Ez bada,...

PIARRES samur-bere buruari

Gizon mihi luzel!
GAXUXA

... badabila
 Guarda horren hiltzeko manua hedatzen
PIARRES

Ez, ez, aski!
GAXUXA

Ai , Piarres, sobera kexatzen
 Zare. Gezur balitz, ez zinteko asalda
PIARRES

Bainan zuk asmatuaz kanpo deusik ezda
 Horrek eta hainbartze nau erroarazten
 Alo! irriz ea ba? Ez, noraino zaituzten
 Gogoeta horiek eremanen? ea?
 Irringarria zare, Gaxuxa maitea.
GAXUXA

Ez, oraikoan, Piarres, ez dezaket duda.
 Senhar bat kontrabandixt jadanik zerbeit da
 Senhar bat hiltzaile, ez, hori, ez, sekulan!
 Kontrabandan gau eta egunez dabilan
 Gizon batek, ez, ez, du deus onik eginen.
 Ene solas guzietan irriz ari zinen;
 Horra zertaratua zaren orai, horra!
 Gizon baten hiltzerat... ezda ba gohorra!
 Zer? Zer eatakuruak Gazpar guarda horri

Oldartzeko zaizkitzu gogorat ethorri?
Guarderi bizitzea ez zaie zilhegi?
Ez othe?... Ba1, nahi dut, atze urrunegi
Joan da; bainan neurrian egon zaizte zuek?
Zer dretxo, zer arrazoin dute hemengoek
Hiru naur dauzkan aita bati jazartzeko?
Bihotz eta fedeak, Piarres, joaten zaizko
Edo ttipitzen othe kontrandixtari?

PIARRES

Gauz hoitaz zer dakizu, predikutan ari
Baratu gabe

GAXUXA

Zer?

PIARRES hazarre atheratzerda

To! bakea emezu!

GAXUXA

Bai, zureak aditu beharko ditutzu!

HIRUGARREN ZATIA

Arratsaldean

I

Piarres bakarrik gero Gaxuxa

PIARRES

Eskaleretarik hurbil

Zorioneko gaua! Sutan dut burua.
Hameka gogoetek egun nardatua
Tirabirakatua naukate osoki,
Zer egin? Zoin den zuzen bidea banaki!
Ni othe naiz zinez, gain hautako zaintzaile?
Guarda horri jazarriz, zer naite? Hiltzaile,
Gaixtagin ala bertzen zaintzeko ariden
Aintzindari bat? Orai zertan othe dauden
Estakuruak eta dretxoak xartzen
Ahal banintz doi bat...

aphur bat ixildu eta

Jes! azkenean etzen

Batere gaizki mintzo Gaxuxa... Zer egin
Du bertzeri Gazparrek?... Desaik ez; nerekin
Eta nerekin xokai da tzarra izatu...
Zakalar batek othe noizdanikan ditu
Bere ontasunaren begiratzekotan
Jendeak garbitzen? ez, ez, Jauna miletan
Nahiago nituzke denak galdu.
Eta beharba paper tzar horrekin ez du
Gauz handirik egiten ahal... Hau eguna!
Eup! Gaxuxa ez duzu nihun atxemana
Oraino?

GAXUXA gainetik

Bai, bai, heldu!

PIARRES

Zer ari zait ba da?

Bo! gero eta azkenean, segur eta fida
Nuzu ez dituela frogak agertuko.
Ez daiteke atrebi, eskuarak ez zaizko
Eta zuzenki jinak; ez lukela ere
Geilhago bizitzerik, agertzen balire
Badaki arraz ongi. Ez dute segurik
Jasanen zuzen kontra ari den guardarik:
Hemengo jenden berri, badaki Gazparrek
Nehork bezein ontsa... bai... bai Guarda tzar horrek
Odol gaixtorik egin arazi daut bethi...

GAXUXA

Huna gakoa! galan zen... zertako goiti
Ereman othe nuen batere ez dakit

PIARRES

Esker mila

GAXUXA

Gorrixko zare

PIARRES abian

To! Joan zaizkit

Bururat zure erran merran tzarrak oro.
Zuk hoinbertze mintzaldi egin eta, gero
Piska bat gorritzea, ez da mirakullu.

II

GAXUXA

Leihotik hurbil jarririk josten ari da

Ai! gizonaren thema!... bai, ederki oiuhu
Egin daut,... Halarikan ere iduri zait
Gaur erran diozkadan egitoak zerbait
Egin dioten, ez du kuxean aphaldu
Nahi; bainan jabaldu eta aithortzen du
Egintzenaz bederen

trufatuz

Zakalar handiak...

Galtxagorritegitik jin handikeriak!
Denentzat hobe laite, segue, ez balitu
... Handia, bai, oren muthil... ez bagitu
Buruzagigo horrek larruturik hiltzen...
... Gaixo haurrak!...

III

Gaxuxa-Ganix-Bettiri

GANIX

Hela!

GAXUXA xutituz

Oi! jauna, begiratzen

Ez bagituzu!

Etxe huntan ez da nihor? **GANIX**
Sar zaizte ba, Jaunak, sar. **GAXUXA**
Piarres ez duzu hor? **GANIX**
Agur, etxekandrez! **BETTIRI**
To! hemengo aldi **GAXUXA**
Zu ere gaur, Bettiri, **BETTIRI**
Bai, badu aspaldi
Ez nintzela ethorri,...
Bon! nun dugu bada? **GANIX**
GAXUXA
Errota zaharrerat, oraintxet gana da. **GANIX**
Zaude, etxekandrea, gu joanen gitzaio **GAXUXA**
Ez, az, heldu naiz.

IV *Ganix-Bettiri Ganix*

Gure bisita etzaio
Soberarik gustatu etxekandreari,
Segur eta fida naiz, **BETTIRI**
Ez zaiote sori
Gizonak mendiz mendi balin badoazi,
Emaztekiak dire hain bakean bizi
Etxe xokoan, nun maiz bainago lanjeren
Aiphatzean berean izitzen ez diren. **GANIX**
Oraikoan ez dugu lanjer manjer ainitz
Izanen mendi hoitan. **BETTIRI**
Bai , erradak berritz!
Guarda gaixto horrenak eginak dirade
Harritzen nuk halere hiltze horren alde
Zakalar hain errexki jarririk. **GANIX**
Errexki,
Errexki, bai, emagun, Bettiri...; balaki
Bazterretan ikhasi dutana, akula
Eta hortarat zinki susta gintzazkela
Segur nauk segur; gure lagunak hain aire
Ohointza zikhin hori jakinez hasarre!
Eta zuzentze horrek guziak hain ditu
Bozkarioz bethe **BETTIRI**
Bai, mendia garbitu
Behar zen izurrito hiltzaile hartarik

Hainbertze errextasun gaur ditugularik
Bekatu bat litake ez baliatzen

GANIX

Sinhesten haut: bekatu handi bat

BETTIRI

Bertzea
Baigorriko Eskualdun hura izanen duk

GANIX

Ai, ez dezake beraz Gazparrek iharduk
Alde jarriko zaiku...

BETTIRI

Alde! eta nola!
Gazpareen espantuez aseak direla
Diote guardek berek, holako gaixtagin
Nihun ezin egun bat ikhustearekin
Àintzindariak alfer huts hutsak dauzkate
Bertze guardak.

GANIX

Bistan duk!

BETTIRI

Jada badituzte
Harrakor eskas horren gatik zenbeit makur
Jasanik; ase dira ere, ase.

GANIX

Segur

BETTIRI

Eta zer? kazkoin horri plazer egiteko
Lagunak lapurtzerat leihaturen zaizko?
Ez, segur, guarda onak ez dituzte etsai
Kontrabandixtek: gaurkotz gauden beraz lasai,

GANIX

Espantu handienek egin ditu bethi
Gazpar guardak

BETTIRI

Hil eta, bai, espantu guti

GANIX

Hori da!

BETTIRI

Intzolako erreka gainerat
Doazinaz gainean, gauaz ixtripu bat
Menturaz, han gertatzen balin bade ere
Errak, nungo jendeak harrituko dire?

GANIX

Oraikoa, Gazpartto, ez duk eskapurik.

BETTIRI

V

Zakalar-Ganix-Bettiri

BETTIRI-GANIX

Agur!

PIARRES

Agur. Hitzik erran gabe mahainaren ezker alderat doa

GANIX

Bera buruari, Zer duba?

PIARRES-BETTIRI

Errak, tzarkeririk
Gazparrak nehoiz egin othe dauk, Bettiri?

BETTIRI

Eni? ez dakit eta... ez.

PIARRES

Ganixi, Bon eta hiri?

GANIX

Bai, eta ez; Niri nehorri deusik ez
Bainan zuri gau huntan egin dauzkitzunez
Ez othe daut, errazu, tzarkeri bat egin?

PIARRES

Nun othe gira hemen, nahi nuke jakin,
Zakalarbordan, naski. Hernengo gauzetan
Kontrabandlixt lagunek, iduri zitzaitan,
Ez zutela sekulan deus ikhustekorik
Nahi dut, kontrabandan ari ginelarik
Gazpar guardak tzarkeri bat egin banindu
Gutarik bakotxari ziteken zabaldu
Kalte hori; orduan izanen zinuten
Zuek beharba jende kolpatuek duten
Bizi eta izaiten zaintzeko dretxoa.

GANIX

Bainan orai zer duzu, ba, Piarres gaixoa?

BETTIRI

Piarres, zertako zare hain garrazki mintzo?

PIARRES

Zer? Guarda bat hil gauaz etxe huntan atzo
Sartu delakotz? Ez, ez naiz burutik mainku.

GANIX

Zer nahi duzu, guri kalte gaitz bat zaiku
Gure jaun buruari egin den kaltea,

BETTIRI

Bai, hala da.

PIARRES

Eder de leihal izatea
Eder adixkideri funtski atxikia
Izatea, denetan hekien ongia
Bilatuz, bi bieri eskerrak bihotzez
Dauzkitzuetet, bainan nere izateaz
Ez zazuzla izan grifiarik, badakit
Nere burua zaintzen; lanjerak ez zatzkit
Arrotz.

GANIX

Bai, badakigu zure bihotzaren
Berri; Piarres, haatik zoin bitxia zaren!
Oraiko lanjer gaitza gure gatik zaitzu
Ethorri, gure gatik, bai, zer uste duzu,
Gerizatu gabe gaur utziko zaitugun!

BETTIRI

Gurekin ez bazine izan, ez zitzaitzun
Gertatuko

PIARRES

Neretzat ere ez othe naiz
Ari?

GANIX

Zehorrek ezetz frogatu duzu rnaiz
Eta guk zu zaitugu Piarres, buruzagi
Gaur zure ez zaintzea ez zaiku zilhegi

BETTIRI

Kontrabandan aitzeak, nik uste, ez zaitu
Gohorki aberasten, hobeki hanpatu
Ere zurekin ari direnen moltzeak...

PIARRES

Oi!

Zozokeri hoitarik ixil zaitze othoi!
Eta jakin zauzue, ez bakinakite
Ere Zakalartarrek neholaz ez dute
Nehoz gizonik ez hil, ez hilen, dirua
Gal beldurrez, etsai bat hetaz bortiztua
Menturaz izan bada ere, ez da, segur,
Zuzen kontra izanen. Ez, nihoren beldur
Ez dire, bainan eskas ez dituzte fede
Bihotzak, hain gain hortan zuzenaren alde
Gure jaun Goikoa.

GANIX

Gu ere zu bezenbat
Osoki atxikiak gare fedeari
Bainan hain segur zare zuzen alde ari
Ez garen, guarda horren...

PIARRES

Ez othe duzue
Entzun? Zer moduz erran behar zaizkitzue
Gauzak zuer? miletan nahiago dut hil
Ezen ez sosen gatik gizon hilka ibil...

BETTIRI

Zure haurrak...

PIARRES

Haurrak? gau handiak baliez
Aita bezala egin lezakete. Zinez
Deshogoratu nahi gaitutzue, naski!
Frogak erakutsiko dituen, nork daki?

GANIX

Bertze kalterik egin dauku Gazpar guardak
Erramunek badaki zer...

PIARRES

Ganix, erradak,
Baitezpada nahi duk Gazpar guarda hura
Garbitu. Hik duk eta egiatzko herra

GANIX

Piarres...

PIARRES

Badakik nihork bezein ontza, mozkor
Zen batez salhaturik bere burua, hor
Baitzen Gazpar, aditu zituela oro
Eta pulli pulliki bildu zuen...

BETTIRI

Tiro
Ere usu egin du tzar horrek; zer zaitzu?

PIARRES

Guardar guri bezala ez zaiote haizu

Lanaren egitea...?

GANIX

Zer athermaldia?

Ai! bertzela mintzo zen, Zakhalar handia,
Zer? Guarda hoikieri norbeiten hiltzea
Haizu, eta ez guri ihardukitzea?
Nor nahi duzu dadin hil; hura ala ni?

PIARRES

Holakorik sekulan ez duk entzun eni
Erraiten. Ez guardak, ez gu, ez dut onhesten
Batzu bertzen hiltzerat nehoiz berma giten
Gazpar basegi dela ez dozaket uka
Huts egin badu ere, ez zuen tiroka
Ari behar: herritik joaterat bortxatzen
Ahal dugu, bainan hil, ez..

GANIX

Haatik etzen

Iziturik gan zure mehatxuen gatik.
Herra bihotzean hor da gure ondotik
Errabia gorrian oraino ibilki.
Zure mehatxu hoiek ez dute, ez unki,
Ez unkituko: behar dugu hola utzi
Eta oro hiltzeko lanjeretan bizi
Edo gure biharko hiltzalle tzar hori
Hil.

PIARRES

Sinhets nezak, haiz zuzen alde ari
Guk ez dugu guarda bat hola hiltzen ahal
Geroaren beldurrez.

GANIX

Zakalar bat leihal

Eta beldurrik gabe zela uste nuen

BETTIRI

Gaur goizean hiltzeko gogoia zinuen...

GANIX *Bettiri'ri*

Geroztik emazteak ttuttularazi du
Osoki.

PIARRES *hasarre*

Ganix, xaiz oraino ixildu?

Ausarta ez bertzea; gauz hoitaz zer dakik?
Azken manuen bila jina haiz: to harzkik:
Ez joan egun mendirat.

GANIX

Bai, joan behar dugu.

Herritarren zaintzerat, ez zare heldu? Gu
Joanen gare beldurrik gabe

PIARRES

Zoazte! zoazte!

Nik nahi gabe: nere pekoek ez dute
Hiltzaile izen bainan kontrabandixt... Aitu?

BETTIRI

Hiltze hortarat, Piarres, nork berotu gaitu?

PIARRES

Zoazte!

GANIX *Bettiri'ri*

Haugi!

PIARRES

Zoazkite! bainan ni hil gabe
Ez zarezte izanen Gazpar horren jabe.

AZKEN SOLAS

Biharramunean...

I

Gaxuxa-Pettan

GAXUXA

Zoazi ba othoi! Pettan, ez dezaket iraun.
Beha zazu hor gaindi nihor ez den ezaun,
Ezta dudarik grifiaz ilharaziko nau.
Nork daki zer gertatu zaion.

PETTAN

Bo! aldi hau
Andre, ez da lehena. Iklusiko duzu
Goiz huntan listo listo ethorriko zaitzu,
Koxatzeak begi beltz, andre; mendi alde
Doan aldi guzitan, ikharetan zaude
Hameka lanjer eta ixtripu asmatzen.
Ez, zare usatua, oraino?

GAXUXA

Ez nintzen
Hain kexu, ez, lehengo aldietan: atzo
Hemen entzun bazinu. Jauna! etzen mintzo
Sekulako oihuak egiten zituen.
Mendialde joatetik ere nahi nuen
Baztertu. Oro alfer! Errabian gan zait,
Zoazi ba, Pettan, zinez, beldur nuzu zerbait
Gerthaturik.

PETTAN

Bo!

GAXUXA

Bainan joan orde zer ari
Zare hola?

PETTAN

Egia errateko hari
Ikhusi dut aixtian, andre, eta...

GAXUXA

Eta?

PETTAN

Tiroak entzun diren uste du.

GAXUXA

Zer?

PETTAN

Ezta

Batere segur zeren...

GAXUXA

Ez dezaket duda

Hek ez badire aitu, gauaz nor aitu da
Tiroka?

PETTAN

Ez dakizu ba kalaka franfo
Derabilala Marik; nola daki hango
Barri bat harek.

GAXUXA

Mari gezurka ez da maiz
Ari, harek dionaz gainean, segur naiz
Zerbeit gertatu dela... Nun behar ibili!

PETTAN

bere buruari-leihoko alde

Bo! ixildu banintz! Bo!
Leihotik beha.

To! Ganix Iruli!

GAXUXA

armario izkinetik beha

Bakarrik?

PETTAN

Naski... bai, bai...

GAXUXA

armarioaren kontra - burua eskuetan, auhenka
Alargun! Alargun!

PETTAN

Ai! urde kontrabanda!

GAXUXA

Oi!..

II

Gaxuxa-Pettan-Ganix

GANIX

Jainkoak egun

On!

GAXUXA

Zer gertatu zaion, ereguzu, laster.

GANIX

Deusik ez!

GAXUXA

Hala bailtz ez zinteke ager
Bakarrik eta bizai zurpail hits horrekin...

GANIX

Zer dire kalapita hoik?

GAXUXA

Nahi dut jakin:

Piarres, nun da?

GANIX

Heldu da, eihematik hurbil
Izan behar du orai.

GAXUXA

Zer? Bizi da? Ibil
Daite ala bertzeek dute...

GANIX

Segur, bizi
Dela

GAXUXA

Bizi? Oi jauna!

III

Ganix-Pettan

GANIX

Zerk zinhetsarazi!

Dio hil zela?

PETTAN

Guardak gau huntan tiroka

Aitu zirela zion aixtian kalaka

Frango dabiltzan Mari Larregainekoak,

GANIX

Bazinakiten beraz!

PETTAN

Zer? guarden tiroak

dituzte aditu?

GANIX

Bai.

PETTAN

Aapaldi nindagon

Mendian ixtripu bat noiz jinen zitzaion;

Horra beraz,

GANIX

Gau huntan ikhusi bazinu

Zer egin duen. Nahi ginen haren manu

Guzien gatik ere behingotz jazarri

Tzarkeriaz hain omen handiko Gazparri.

Intzolako aldean erran tenorako

Hantxet ginen guziak, bide baztarreko

Sasietan gorderik, begira egoki.

Zeruan ilhargia lo zagon goxoki

Hedoietarik harat, arrunt gelditua

Zaikun uria, aize oldarren sistua

Baizik etzen entzuten. Han ginen bi oren

Hartan hoztuak... horra nun agertzen diren

Baigorriar handia eta Gazpar. Sistu

Egiten dut, bidean arras gutaratu

Direneko; eginen dugu jauzi, Gazpar

Tanpez inguratzeko... Bet betan Zakalar

Ximixtan iragaiten da irrintzinaka,

Oihuka, Gazpar deituz eta zirurika

Guarda hori ondok badoa aintzinat

Olhunbetan itzaliz. Xuxen gure ganat

Sarean erortzerat zoan guarda hori

Nola airatu zaikun! Ez den harrigarri

PETTAN

Aspaldi nion: gure Piarres, zer gizona!

Bainan aipatu tiro hori zer zen? Jauna

Zer egin othe zaiku? Errazu laster.

GANIX

Ai!

Hitz dauiet bertze lanik baginuen orai.

Ohartu gareneko bagoazkiote

Ondotik. Aski laster atxemanen othe

Dugu guarda gaixtagin tzar hori? ondikotz!
Tiro bat entzun dugu eta jin ordukotz
Lohipean atzana ez dugu aurkitu
Gorphutz luze hatshantu eta odolztatu
Bat batzik...

PETTAN

Gaizo Piarres!

GANIX

Oi, ene binotza
Zoin erdiratu zaitan! Gure Piarres gaitza
Hor lurrean zaurtua edo ere hila
Ezautu dutanean. Zoratu bezala
Egon naiz istan batez. Zoin nintzen ahalke!
Hiltze horren hobendun nor othe liteke
Ni salbu? Aize sistu suhen luze hetan,
Gau beltzean, isoki iduri zitzaitan
Hil zela bethikotz hil! Ai zer bihotzmina!
Burus behera, Hatsa herioak joana
Othe zion nindagon...

PETTAN

Eta?

GANIX

Eta hasi
Zaizkonean auhentto batzu joaten, jautsi
Zait halako goxo bat blhotzerat

PETTAN

Ainitz
Kolpatu zuen?

GANIX

Deuslk gerthatu ez balitz
Bezalatsu lasterko xutik eman zaiku
Eta orai heldu da etxe alde rnainku
Aire batekin eta besoa zaurtua.

PETTAN

Gaizoa! eta guarda?

GANIX

Bai, eskapatua
Den eko orhoitzen haiz, hi ere. Jokoa
Egin eta lasterka gure, puttikoa
Xesari eman da, heldu gitzaizkola
Xartuz lazturik; ez baikinion hola
Barkatuko. Bai eta gero gogoratu
Zaikunean urrun zen eta... hortaratu
Bazen ere ez othe zen horren bizia
Begiratzeko egin Zakalar.

PETTAN

Egia!

IV

Zakalar-Gaxuxa-Ganix-Bettiri-Pettan

BETTIRI

Mirikuaren bila igorridu, Joanes.

PIARRES

Ez zuen balio

GAXUXA

Ba, ba, hobe da, Piarres,
Zer gertha ere.

PETTAN

Huna, huna, hemen, guarden
Zaintzalea.

GAXUXA

Nork daki zer ikhusiko den
Oraino hunekin

PIARRES

Ai!... Zer eginen nuen
Ba, Pettan? Deus lanjerik Gazparrek ez zuen
Izanen, nihaur hiltze horren alde jarri
Ez banintz. Bai eta ez zitziola horri
Oldartu bebar funaki ohartzean, egin
Ahalak egin behar nituen ez dadin
Hil, atzo hiltze hori onhartu nuenaz
Geroz.

GAXUXA

Etzinezaken deusik egin hortaz
Kanpo? Ez zinituen behar zen bidetik
Zerbeit gisaz baztertzen ahal?

PIARRES

Bai, ondotik

Aise mintzo zare zu. Jadanik berandu
Nuen eta zartarik bazter beharko du
Jakin baztertu nahi duenak. Jarraiki
Nitzaiote hargatik emeki emeki
Sasiz sasi, nunbeitik usaiako sistu
Mina entzun artean. Orduan agertu
Naiz dakizuenaren gerthatzeko,

GAXUXA

Piarres,

Eta hil bazine? bai holakotan errex
Baita niltzea gero.

PIARRES

Ez ninduen nere
Eginbidetik deusik, ez hiltzeak ere
Gibelarazi benar.

GANIX

Sinhetsi bazintut!

PIARRES

Ba! zuen arrazoinak konprenitzen ditut
Pasatuak pasatu. Bertzaldian zapha
Khar soberakin hori.

GAXUXA

Ez dezagun aipha
Gaihago, gerthatu gauz dohakabe hori.

GANIX

Ondikotz!

PIARRES

Errak, Ganix, bildu dutan zauri
Hunek erranen daitak geroan zer egin.
Gu Kontrabandixtak ez baikare gaixtagin.

V

Lehenagoak-Jaun mirikua

JAUN MIRIKUA
Zer da hau? mintzo zaiku gure hil hurrena?

GAXUXA eta...
Jaun mirikua!

JAUN MIRIKUA
Egun on; etxeko jauna,
Konpañiarekin

GUZIAK
Ba ta zuri are, jaun
Mirikua.

JAUN MIRIKUA
Kalaka horri ez da ezaun
Bethi deusik baduen.

PIARRES
Ez dakit zertako
Deitu zaituzten ez dut eta hanbateko
Zeuririk,

JAUN MIRIKUA
Ez zautuztet aditzen ahal nik
Zuek, hil eta baizik ez duzue minik
Laborariek. Zure bisaiak bertzerik
Dio. Eta, errazu, heldu nintzelarik,
Letra batekin harro harro ez dakizu
Nor jin zaitan?

PIARRES
Ez, jauna

JAUN MIRIKUA
Noizdanik ditutzu
Guardak hain adixkide errazu?

PIARRES
Zer, Gazpar?

JAUN MIRIKUA
Hura bera

PIARRES
Gizona!

JAUN MIRIKUA
Bai eta joan behar
Zuela baitezpada hemendik, ez othe
Nuen laguntzen ahal. On egin diote
Inposilez norbeiten mahatxuek eta.

PIARRES
Ez, ez, zauritto hunek... Baitaki zer artha
Duten hemengo jendek guarda hitzaileez

JAUN MIRIKUA
Bai, baningon zerbeit holako ez zenez
Gerthatu: Hatsantua; ikhara daldaran
Ari zen, hanbat nun ez baitzezaken erran
Gogoan zuena.

GANIX
Hau eguna!

PIARRES
Ikhusi

Duk, gizon zuzena tzarrari naguzi
Bilakatzen zaiola goiz edo berant. Zer
Nahi makur ekarri behar zaukun dener
Zuen jazartze horrek eta sakulako
Hiltze horren odolak zuen hartxatuko
Gure gogoa. Ez dut, segur, zauri hunen
Damurik, huni esker guziak ogopen
Baikare, bethi garbi. Eskerrak Jaunari!

JAUN MIRIKUA

Ea, orai, holako den phereka hori?
Zauri huntarik aise sendatuko zaitut.
Kontrabandako gaitza aldiz, andre, eztut
Sendatzen ahal.

PIARRES

A! A!

JAUN MIRIKUA

Bainan zahartzean
Prestutuko da nahi al'ez

GAXUXA

Anartean!?!...